

Agintariak eta Langileria

Oposaketak eta Lehiaketak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

2679

EBAZPENA, 2010eko apirilaren 29koa, Langileriaren Kudeaketako zuzendariarena. Honen bidez argitara ematen da noiz izango diren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak 2009ko abenduaren 10ean emandako Aginduaren bitartez deitutako hautatze-prozedurako aurkezpen-ekitaldia eta oposaketa-aldiko proba (2009ko abenduaren 10eko Aginduaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen kidegoetan sartzeko hautatze-prozedurako deia egin zen).

Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoaren kidegoetan sartzeko hautaketa-prozedura deitutako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak 2009ko abenduaren 10ean emandako Aginduaren 6.2 atalean zehazten da zein proba egin behar duten oposaketa-aldian prozedura horretan parte hartuko duten izangaiek.

Agindu horren 7. atalean xedatzen denez, aurkezpen-ekitaldi bat egingo da 2010eko ekainean, eta bertan, prozesuaren garapena azalduko da; izangaiek derrigorrez joan beharko dute bertara, eta ez da onartuko ahalordetzaren bat duten beste pertsona batzuk joatea.

Ebazpen honen bitartez, argitaratzen da zein egunetan izango diren aurkezpen-ekitaldia eta oposaketa-aldiko proba.

Ondorioz, hau:

XEDATU DUT:

Lehenengoa.– Prozesuaren garapenaren berri emateko egingo den aurkezpen-ekitaldia egun hauetan izango da, eta bertara izangai guztiek joan beharko dute nahitaez:

Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa: 2010eko ekainaren 14an.

Langile Heziketako irakasle teknikoaren kidegoa: 2010eko ekainaren 15ean.

Bigarrena.– Oposaketa-aldiko probaren A parte Bilbao Exhibition Centre-n (BEC), Barakaldon (Biz-

Autoridades y Personal

Oposiciones y Concursos

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

2679

RESOLUCIÓN de 29 de abril de 2010, del Director de Gestión de Personal, por la que se hace pública la fecha en que tendrá lugar el acto de presentación y la prueba de la fase de oposición del procedimiento selectivo convocado por Orden de 10 de diciembre de 2009, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, para el ingreso en el Cuerpo de Profesores y Profesoras de Enseñanza Secundaria y Profesores Técnicos y Profesoras Técnicas de Formación Profesional de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El apartado 6.2 de la Orden de 10 de diciembre de 2009, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convoca procedimiento selectivo para el ingreso en el Cuerpo de Profesores y Profesoras de Enseñanza Secundaria y Profesores Técnicos y Profesoras Técnicas de Formación Profesional de la Comunidad Autónoma del País Vasco determina la prueba a realizar en la fase de oposición por los aspirantes del citado procedimiento.

El apartado 7 de la citada Orden dispone que a lo largo del mes de junio de 2010, se llevará a cabo un acto de presentación en el que se informará sobre el desarrollo del proceso y al que las personas aspirantes deberán asistir con carácter obligatorio, no siendo válida la comparecencia de otras personas con algún tipo de apoderamiento.

Mediante la presente Resolución se hacen públicas las fechas de la prueba de la fase de oposición así como del acto de presentación.

En su virtud,

DISPONGO:

Primero.– El acto de presentación en el que se informará sobre el desarrollo del proceso y al que las personas aspirantes deberán asistir con carácter obligatorio, se llevara a cabo los siguientes días:

Cuerpo de Profesores y Profesoras de Enseñanza Secundaria: 14 de junio de 2010.

Cuerpo de Profesores Técnicos y Profesoras Técnicas de Formación Profesional: 15 de junio de 2010.

Segundo.– La parte A de la prueba de fase de oposición para quienes se presenten por los turnos li-

kaia), egin beharko dute 2010eko ekainaren 19an txanda libretik eta ezinduei gordetako txandatik aurkezten direnek.

Hirugarrena.– 2010eko ekainaren 22tik aurrera egingo da txanda libreko eta ezinduei gorderiko txandako probako B parte, bai eta goragoko beste irakasle-kidego batzuetara sartzeko txandetako oposaketa-proba ere.

Laugarrena.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko web orrian (<http://www.irakasle.net> eta <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>) eta lurralde-ordetzkaritzetako iragarki-tauletan argitaratuko da zein ordutan eta non izango den aurkezpen-ekitaldia eta zein ordutan izango den oposaketa-aldiko probaren A parte, baita egoki irizten diren beste gai guztiak ere.

Bosgarrena.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko web orrian (<http://www.irakasle.net> eta <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>) eta lurralde-ordetzkaritzetako iragarki-tauletan iragarriko da zein ikastetxetan egingo duten probako B parte txanda libretik eta ezinduei gordetako txandatik aurkezten direnek, baita non egingo duten oposaketa-proba goragoko irakasle-kidego batera sartzeko txandatik parte hartzen dutenek ere.

Seigarrena.– Behin epaimahaien jarduerak hasi eta gero, ikastetxe horietan bertan hogeita lau ordu lehenago egingo zaie probako B parte egiteko deialdia txanda libretik eta ezinduei gordetako txandatik parte hartzen duten izangaiei eta oposaketa-proba egiteko deialdia goragoko irakasle-kidego batean sartzeko txandatik parte hartzen dutenei. Era berean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Interneten dituen helbideetan ere emango da horien berri, hain justu ere <http://www.irakasle.net> eta <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net> helbideetan, herritarrak jakitun egon daitezten.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko apirilaren 29a.

Langileriaren Kudeaketako zuzendaria,
JUAN MANUEL ARAMENDI ARTEAGA.

bre y de reserva por discapacidad se celebrará el día 19 de junio de 2010 en el Bilbao Exhibition Centre (BEC), Barakaldo (Bizkaia).

Tercero.– A partir del 22 de junio de 2010 comenzará la parte B de la prueba de los turnos libre y de reserva por discapacidad, así como la prueba de oposición en el turno de acceso a otro cuerpo docente de grupo superior.

Cuarto.– La hora y lugar de celebración del acto de presentación y la hora de celebración de la parte A de la prueba de la fase de oposición, así como cuantas otras cuestiones se consideren oportunas se anunciarán en los tablones de anuncios de las Delegaciones Territoriales de Educación y en la dirección de Internet del Departamento de Educación, Universidades e Investigación: <http://www.irakasle.net> y <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>.

Quinto.– Los centros donde se llevará a cabo la parte B de la prueba de los turnos libre y de reserva por discapacidad, así como la prueba de oposición en el turno de acceso a otro cuerpo docente de grupo superior, se anunciarán en los tablones de anuncios de las Delegaciones Territoriales de Educación y en la dirección de Internet del Departamento de Educación, Universidades e Investigación: <http://www.irakasle.net> y <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>.

Sexto.– Una vez comenzadas las actuaciones ante los tribunales, los sucesivos llamamientos de aspirantes para la celebración de la parte B de la prueba de los turnos libre y de reserva por discapacidad, así como la prueba de oposición en el turno de acceso a otro cuerpo docente de grupo superior, se harán públicos en los centros en que se celebren tales pruebas con veinticuatro horas, al menos, de antelación a su comienzo. Asimismo, se harán públicos en la dirección de Internet del Departamento de Educación, Universidades e Investigación: <http://www.irakasle.net> y <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>, a efectos informativos.

En Vitoria-Gasteiz, a 29 de abril de 2010.

El Director de Gestión de Personal,
JUAN MANUEL ARAMENDI ARTEAGA.